


BIZKAIKO OFENTSIBA-1937



rriko zirela, edo barkuan etorriko zirela Ameriketatik..."

Fronteak apirilaren 24an eta 26an bitartean hautsi ziren Bizkai-Gipuzkoan. Bitor Lekunberri Otxabiña Gipuzkoako azken lur pusketa libretik erretiratu zen azkeneko taldekoa izan zen. Elgetan jo ta sua erasoka ari ziren une berean, 24an, "bonbardeoa egon zen Eibarren", gogoratzen du Otxabiña. "Udaletxe inguruan, hotela dagoen lekuan, errefujioa zegoen eta jende mordo bat zen hara jausitako hona batekin. Jausi ziren 60 bat edo".

Fronteko lerroak indartu nahian edo, Urko mendian, Eibar ondoan, erresistentzia planteatzea pentsatu zuen Otxabiñaren batailoiak, baina alferrikako saiola izan zen. Haiek Urkon zeuden bitartean, beste indar frankistak barneratzen ari ziren jada Bizkaian zehar, eta Oiz mendira ere iritsi ziren. Atzean inguratuta gelditzeko arriskua zuten Eibarko azken defenditzailerek, eta ihesari eman behar izan zioten, baso artetik ezkutuan, apirilaren 26an. "Abioiak zeuden gure gainean", diosku Otxabiña mendiko martxa latz hura gogoratzean du. "Objetiboa Gernika zen, baina jakin izan balute horrenbeste gindoazela basoetan... Baina ez zuten tirorik ere botat". Azkenean erretaguardiarekin bat egin zuten eta salbatu zen batailoio hura. "Heldu ginenean, Gernika baino lehenago azaldu zen komandantea. 'Jendea, batailoia, hemen gatoz denak', esan nion. Negarrez hasi zitzaidan".

J. APEZTEGIA

Lurreko aurreratzea zetorren seinale zen bonba zaparrada hura, eta halaxe hasi zen hurbilpena Asentzioko ermitatik, Elgetatik ezkerretara kilometro batera edo. "Asentziotik hasi ziren irteten euren tropak. *Regularrak* ziren, moroak". Nonbait, frankisten indarrek Maroko iparraldeko arabiar edo berbereen tropak erabili zituzten lehen eraso itsu hartarako. "Ermita ondotik joan ziren, Elgetaruntz, eta guk Karabietatik primeran ikusten genituen. Bi kanoi geneuzkan han eta beste bi Elgetako kanposantuan, eta hasi ginen botatzen albotik. Ametrailadore eta fusilekin ere, alza ipini pixka bat eta fuego. Bueno... jausi ziren moro mordo bat", gogoratzen du Inazio Bilbaok.

Elgeta azkenean hartu zutenean faxistek, Afrikako tropek basakeria handiak egin zituzten sofritu behar izan zutena mendekatzen. Eskuak libre utzi zizkieten ehizarako, eta lapurreta eta hilketan hasi ziren, Gerra Zibileko gertera beltzenetakoa batean. Baserri batean baino gehiagotan hil edo jo zuten jendea. Bortxaketarik ez omen zen gertatu, baina Zestogain baserrian, etxeoandrea hil zuten labainkadaka; alaba amari helduta zegoen hura hil zutenean, eta labainarekin hiru atzamar galdu zituen neskatoak. Frankisten komandanteak geldiarazi zituen gehiegikeria haiek azkenean, eta eskarmentu gisa mairu bat fusilatu zuten faxistek beraiek Elgetako plazan.

"Arratsalde guztia ere bonbardeoan geratu barrik", segitu du kontatzen Bilbaok. Elgeta inguruak defenditzeko hiruzpalau pare kanoi zeuzkan Euskal Armadak, eta "besteek 200 gutxienez". Hala ere, egoera horretan ere atzerarazi zituzten Ubera aldetik tropekin eta blindatuekin egin zituzten aurreratze saiokoak. Gaua lasaia izan zen —"bake bat bai!"—, eta jana eta munizioak hartzeko aprobetxatu zuten UHP batailoian. Hurrengo goizean, al-

diz, berriro bonbapean zeuden. 24an Angiozartik saiatu ziren igotzen faxistak baina han ere baja mordoarekin atzera egin behar izan zuten. Gauerako, aldiz, frontea desegiten hasi zen, ez Intxortako sektoretik, atzetik baizik.

Frontearen apurtzea eta erretirada

Azkenean, frontea hegoaldetik apurtu zen. "Eskoriatzatik, Aramaiotik eta Udala atzetik hasi ziren sartzen Elorrio aldera. Kanpazarko bidea moztu zuten atzetik, eta ihesi hasi zen Kanpazartik jendea, baina berandu. Bertan harrapatu zituzten mordoak prisionero, eta batzuk akabatu ere bai. Iluntze aldera Elgetatik Elorriorako bidea ere moztu zuten, eta atzetik hasi ziren botatzen kanoiekin, Elorriotik Intxortara. Orduan ez zen beste erremediorik egon: hanka egin behar". Erretirada latza izan zen, aireko bonbardaketa etengabearen azpian. Inazio Bilbaok eta UHPkoek kamioia galdu zuten bonba batekin, baina maldan behera arrastaka salbatu ahal izan zituzten beren bi kanoiak, Karabietatik Eibarreraino. Eibar ere txikituta topatu zuten, bezperako bonbardaketarengatik eta han ere egun bakarra egin zuten.

Hala ere, ekainera bitartean borrokan segitu zuten Bilbaok eta gudari eta miliziano guztiek. Faxisten nagusitasun erabatekoaren alderatuta, erresistentzia hori ez da erraz ulertzen. "Ez zegoen zer eginik, baina morala sobera geneukan", kontatu digu Inazio Bilbaok. "Beti esperantza egon zen, geure abiazioa eta kanoiak, iritsiko zirela. Haietxek abioiak noiz etorriko zain, Madrildik eto-



Bitor Lekunberri

Otxabiña

"Gemikara heldu ginenean azaldu zen komandantea.

'Jendea, batailoia, hemen gatoz denak', esan nion.

Negarrez hasi zitzaidan"

diarekin bat egin zuten eta salbatu zen batailoio hura. "Heldu ginenean, Gernika baino lehenago azaldu zen komandantea. 'Jendea, batailoia, hemen gatoz denak', esan nion. Negarrez hasi zitzaidan".

Metodo berri ankerrak

Orduko lekukoek eta ondorengo ikerlariek ere sarritan azaldu dutenez, Euskal Herriko gerraren patua zerruan jokatu zen. Airean, nazi eta frankistak, aipatu dugun legez, nagusi ziren. Bizkaiko erasoaldian buruturiko taktikak infanteria frankistari aurreratze mugimenduak erraztea zuen oinarri, eta horretarako airez defendatzaileen babesleku, indar eta oro har eskualde osoak suntsitzea zen bidea. Gerran estreinako aldiz burutu zen taktika honek biztanleen kontrako eraso masiboen berrikuntza tamalgarri eta ankerra ere ekarri zuen.

Jakina denez, Durangok eta Gerniak frogatu zuten Molaren hitz beldurgarriak egiazta zitezkeela. Hor ere alemanek eta jeneral espainiarrek bat egiten zuten. Zenbait urte beranduago, Polonia, Frantzia, Kreta eta Jugoslaviako zeruetara eraman zuen Bizkaian entseguetatik metodoa Condor Legioko buruak, Wolfram von Richthofenek. *Blitzkrieg* edo gerra azkarraren ezaugarri bihurtu zen. "Biztanleriari jaramonik egin gabe tokian tokiko erreserbei eraso". Horixe zen Molak behin eta berriro esaten zuena Bizkaia suntsitu behar zuela errepikatzen zuenean. Martxoaren azken egunean, erasoaldiaren lehen orduetan, Durangoko herriak jakin zuen, su eta bonba artean, Molaren hitzak ez zirela alferrikakoak.

• Josu Chueca, Luis Fernandez, Oier Narbaiza •